



# MAXIXATZEN

Azkoitiko herri aldizkaria 2017ko martxoak 8 - 363. zenbakia



## Emakume bidegileak

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, zortzi alorretako Azkoitiko zortzi emakume bidegile aukeratu ditugu.


Suduyra

INTZA ETXEBERRIA AGIRREZABALA  
Fisioterapeuta - Osteopata



Tel: 636 462 851 - 943 850 446  
Jandonianiz 5 - 20720 Azkoitia

- Fisioterapia
  - Osteopatia: estrukturala, garezurrekoa eta erraietako
  - Osteopatia pediatrikoa
  - Garezur-sakro terapia
  - Indukzio miofasziala
  - Obstetria: erditze aurreko eta osteko prestakuntza
  - Uroginekologia
- Urola ZADIA



ATRASKUA



KIMU BAT  
75 urte

**Garden berria!**

AZPEITIA - 943 15 00 85  
www.kimubat.com

# ZERBER BURDINDEGIA

Pertsiana hondatu al zaizu?  
Plantxari kablea aldatzea nahi al duzu?  
Sarraila berritu nahi al duzu?



**ZERBERREN "ZER BER eta huraxe"**

Nagusia, 39  
20720 AZKOITIA  
638 353 125  
www.ferreteriazerber.com

e t k

Informatika Zerbitzuak  
943 02 63 29

www.etkinformatika.com

Webak Software Ingeniaritza Sistemak LibreOffice

Formakuntza GNU/Linux OpenData Ecommerce APP

elkarmedia()

943 85 08 74 • info@elkarmedia.com

Cordonnier



Oinetakoen konponketak

Nagusia 25, behea  
cordonnieroinetakoak@hotmail.com  
Tel.: 943000469



ARANBARRI  
Higiezinari kudeaketa  
www.aranbarri.com

Nagusia, 31 behea - 20720 AZKOITIA  
Tel. 943 85 11 74  
pilikortabarria@hotmail.com

zurt

- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ENSALADAK
- RAZIOAK
- GARAGARDO ETA ARDO ESKAINTZA ZABALA
- TERRAZA HAUNDIA
- ZUZENKO EMANALDIK

KALE NAGUSIA, 68  
AZKOITIA  
943851275

- ARTISAU PIZZAK
- PINTXOAK
- RAZIOAK
- OGITARTEKOAK
- ARDO ESKAINTZA ZABALA
- SOINU-EKIPO
- PAREGABEA
- LARUNBATETAN
- 06:00 ARTE IREKITA

LATZ  
TABERNA  
KALE NAGUSIA, 55  
943851319  
AZKOITIA

ARKITEKTURA  
DISEINUA burruntzia

www.burruntzierreformak.com

943 08 34 87  
ibaiondo 9, behea - AZKOITIA



ALDAKO

SARE ETA INFORMATIKA ZERBITZUAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia  
Tel. 943 083 614 • 629 099 276  
aldako.informatika@gmail.com

SAREAK, IRTEERAK ETA ORDENAGAILU, MUGIKOR ETA TABLET KONPONKETAK




cenor | Desberdinak Gara  
elektragailuak

Larramendi Jauregi

ilusioa\_konpromezua\_esfortzua\_baikortasuna

Julio Urkixo etorb., 13 behea, Azkoitia. Tlf. 943851961 jilarramendi@euskalnet.net

euskalherria  
elekttrizitatea

Elekttrizitatea  
Mantentze-lanak  
Argizatzea  
Antenak  
Atezain automatikoak

Denda: 943 15 11 00  
Elektrikaria: Jon 672 178 925  
Euskal Herria 31, behea  
Azpeitia



**MAXIXATZEN**  
HERRI KOMUNIKABIDEA



**Kale Nagusia, 62**  
**Gipuzkoa, 20720 Azkoitia**  
**943 85 36 17**

[www.maxixatzen.eus](http://www.maxixatzen.eus)

ARCITARATZAILEA:  
Maxixatzen Euskaldunon Elkarte.

ERREDAKZIO TALDEA ETA  
KOLABORATZAILEAK:

Naroa Olalde, Idoia Alberdi, Laida Beristain, Olaia Juaristi, Amaia Ugalde, Ainhoa Aranbarri, Aitor Arruti, Gema Lopez eta Ainhoa Cuende.

KOORDINAZIOA:  
Olaia Juaristi.

MAKETAZIOA:  
Ane Larrañaga.

AZALA:  
Ainhoa Sudupe.

PUBLIZITATEA:  
Ainhoa Aranbarri. Tel.: 943 85 36 17

ZUZENTZAILEA:  
Gema Lopez.

INPRIMATEGIA:  
Gertu inprimategia.

TIRADA:  
800 ale.

LEGE GORDAILUA:  
SS-706-97  
ISSN: 1137-8891

#### Oharra:

Maxixatzenek ez du bere gain hartzen IRITZIAN, KOMIKIAN eta GUTUNEAN adierazitakoaren erantzukizunik. Argitaratu ahal izateko, eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute. Ez ahaztu datu hauek jarzea: izen-abizenak, NA eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziek gehienez 25 lerro izan beharko dituzte eta maxixatzen@maxixatzen.eus helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

# MARTXOKO ALDIZKARIAN ZER?

## IRITZIXE

▶ Ekaitz Etxezarreta: "Ikasi al daiteke historia madarikatuaz?"

## KALIN GALDEZKA

▶ Nun etten dittozu erosketak?

## IZENA TA DIZENA

▶ Azkoitiko emakume bidegileak

## TOKITTEKO PUNTETIK

▶ Olaia Etxezarreta, New Yorken bizi den azkoitiarra

## TOKITTEKO PUNTEKO HERRITARRA

▶ Kamran Arif, Azkoitian bizi den pakistandarra

## IRITZIXE

▶ Garazi Arakistain: "Zergatik sartzen dugu jendea armairuan?"

## IZENA TA DIZENA

▶ Zabalik da Floreagako meskita

## GALDETU AHALA ERANTZUN

▶ Bizenta Mogel ipuin lehiaketako protagonistak

## HILEBETIN BEGIXETATIK

## DENBORA-PASAK

## BERTSOA PAPEREAN

▶ Ugaitz Beristain Erriarraitzeko bertsolariaren bertsoak

## MAXIXATZEN TXIKI

▶ Haurren txokoa

## INAUTERIAK, IRUDITAN

▶ Inauterietan kalean ateratako argazkiak

## MAXIXATZEN MAXIXATUIEZ

▶ Juan Karlos Merino idazle lagunari, esker onez

## ESKURE KOMENI

## AGENDIE

4

5

6

12

14

15

16

18

20

22

23

24

26

28

29

30

12

16

18





## Ikasi al daiteke historia madarikatuzaz?

► Ekaitz Etxezarreta Ibañez

IRITZIXE

**H**alakoxea da, bai, historia: madarikatua, gizakia gizaki izatera iristeko gertatutakoa. Gerra, sufrimendua, miseria, goseteak, izurriteak... Guztia berdinen arteko zapalkuntzan oinarritua. Kapitalismoak, hau da, kapital eta ondasunen pilaketa masiboak, gure historia horrelakoa izatera derrigortu du. Eta politikoki zuzena izango nintzateke hau aldatu beharra dagoela edo zenbaite-tan esperantza dudala edota gizakiak alda dezakeela esango banu... Baina, barkatuko didazue, ez naiz hipokrisia merkean eroriko, iraganean askotan baino gehiagotan erori izan nintzen bezala. Beraz, ozen eta garbi esango dut: ez dugu aldatzeko asmorik, ez eta gutxiagorik ere, ez horixe!

Donald Trump (bai, irakurle, nik ere izendatu egingo dut) boterera igo denetik, oso nekeza egiten ari zait berriak ikusi eta egunkariak irakurtzea. Izan ere, komunikabideek gaiaren azterketan darabilten manikeismo inozoak neure onetik ateratzen nau. Azkenean, guztia gauza batera mugatzen da: Trump joaten bada, guztia konponduta. "Hobe hala izango balitz!", erantzuten diot nik 7 urteko ume baten arrazoiketa izan litekeen horri. Zer pentsamendu magiko klase da hori? Gaurko egunez, 1933az geroztik bizi izan ez den egoera baten lekuko da mundua. Urte hartan, Weimarreko errepublika kolapsatu, eta Europako potentzia ekonomiko nagusiak, Alemaniak, Hitler besarkatu zuen.

Globalizazioak akats berak egin ditu, eta konponbide azkarrak bilatzen dituen masa babesgabe bat sortu du. Historia errepikatu da, bai, baina orain munduko superpotentzia handiengan.

Gaur egungo Trumpen inguruko iritzi sinplista eta komikoak -askotan koldarrak eta zekenak- zitutzen garai hartako Alemaniako elite politiko eta intelektuala osatzen zutenek ere. Damutu zitzaizen! Hain zuzen ere, klase politiko alemaniarren zati handi batek Weimarreko errepublika mugatu egin behar zela uste zuen, klase langilearen onerako

hartu ziren neurri ekonomikoak baztertu eta austeritate ekonomikoko neurriak aplikatu behar zirela, alegia. Horrelako erabakiek eta milizia nazien aurkako debekua indargabetzeak errepublikaren kolapsoa ekarri zuen. Zorigaiztoan murgilduta zegoen langile masak konponbide azkar eta sinpleenak hitzematzen zituen aukera politikoari atxikitzea besterik ez zuen. Horrela igo zen alderdi nazional sozialista boterera. Errepublikaren partez, krisialdi ekonomikoaren aurrean babesgabeak zirenei konponbideak zekarzkien estatu protekzionista bat eraiki zen. Horren ordainetan, langileek fidel-tasun itsuz bete behar zituzten Hitlerren aginduak.

*GLOBALIZAZIOAK AKATS BERAK EGIN DITU, ETA KONPONBIDE AZKARRAK BILATZEN DITUEN MASA BABESGABE BAT SORTU DU; HISTORIA ERREPIKATU DA, BAI, BAINA ORAIN MUNDUKO SUPERPOTENTZIA HANDIENEAN*

Globalizazioak akats berak egin ditu, eta konponbide azkarrak bilatzen dituen masa babesgabe bat sortu du. Historia errepikatu da, bai, baina orain munduko superpotentzia handiengan. Trump, Farage, Orbán eta Marine Le Pen globalizazioak sortutako milaka atsekabetuk igo dituzte boterera. Horrexegatik da alferrikakoa Trumpen kontra egitea, hura ez baita arazoa, egoera baizik. 1973tik su ekonomikoarekin jolastu da, eta ase ezineko anbizioak eta demokratizazioaren gorakadaren beldurrak 1945eko Weimarrekoa bezalako hondamendiak ekiditeko ezarri ziren segurtasun neurriak puskatu ditu. Ondorioz, gaur, Etxe Zurian, galtzaile guztien arazoak edozeren truke (edozer) konponduko dituela esaten duen pertsona daukagu.

Sinetsi al daiteke eskura dugun historiako liburu bildumarekin horrelako jende zikoitz eta memeloaren agindupean egotea eta, are gehiago, 1933an piztu zen infernurako ateak irekitzea baimentzea?

Historia madarikatua ez da?

# Nun etten dittozu erosketak?



## Ainara Fernandez

Donostin o herriko dendatan etten dittut konprak. Lelen herrixen beitzen det, eta ez bat gustoko ezerre bilatzen, Donostire juten naiz. Jatekue, berriz, dana herriko dendatan, eta zapatutan azokan.



## Inazio Odriozola

Jateko freskue dana azokan erosten deu. Erropie, berriz, guk herrixen erosten deu, baino gaztik *pijo* xamarak die, eta haxekin Donostire jun ber izeten deu.



## Aintzane Baztarrika

Lehen Donostire juten nitzen, baino ja gehiyena Axkoitiyen eta Azpeitiyen erosten det. Herrixen txartela ere ibiltzen det. Janari eta eropa aldetik aukerie daukeu herriyen: dana bertan daukeu, eta gainea denda ederrak daukedeu.



## Jon Etxeberria

Frutie ta berdurie zapatutan azokan erosten saxatzen naiz, eta arraxe ta haragixe herriko dendatan. Bestelako gauzek, berriz, saltoki haundixetan erosten dittut.

## Amaia Agirre

Denda txikiyetan erosten ditut arraye, haragiye ta frutie, eta bestelako gauze danak saltoki haundiyetan.

## Itziar Astigarraga


Jatekue dana herrixen erosten det beti, eta gainea denda txikiyetan, familiarro dielako nere ustez. Erropie, berriz, bai eta ez. Donostire juten naiz batzuten konprata.

## Josu Eizagirre

Herrixen apenas erosten det. Deporteko erropie-ta errexena Internetetik erostie etten zat.

## Xabier Oroz

Normalin herriko dendatan erosten det. Konprata atsalde-pasa Donostire-ta jutie denborie galtzie da neretzat. Internetetiken ere erosten dittut gauze batzuk.





# martxoak

*Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, zortzi alorretako Azkoitiko zortzi emakume bidegile aukeratu ditugu. Bakoitzak bere alorrean izan duen esperientzia eta bilakaera azaldu digu, betiere emakumeen ikuspegia oinarri hartuta. Hona egin diegun galdera: "Zer bide egin duzu emakume gisa zure alorrean?". Hurrengo orrietan dituzue erantzunak.*



### *Eneritz Artetxe Eizagirre, Eniarraitz Bertsozale Elkarteko kidea*

Hamar-hamaika urte izango genituen bertso eskolan izena eman genuenean gelako kuadrillatxo batek, eta tartean bi neska ginen. Ume izanda, artean jolas moduan hartzen genuen bertsolaritza, haren nolakotasunaz kontzientzia handirik izan gabe. Orduetik hasi eta plazan kantatzera iritsi arteko ibilbidea modu guztiz natural batean bizi izan dut, emakume izateagatik aukerak gutxitu edo gehitu zaizkidala sentitu gabe. Zortea izan dut Eniarraitzen izan dudana taldearekin, ez baikara neska edo mutil izan, lagun talde handi bat izan baikara.

Hortik kanpo, ordea, aurkitu ditut kezka eta lotsa sorrazten didaten kontuak: lau trago hartu ondoren belarri ertzera kantuan hurbildu eta beti “*rubia*” batekin hasten diren bertsoak (nola bukatzen diren hobe ez aipatu); zakila dutelako edozer esan dezaketela pentsatzen duten

bertsozale/“lariak”; bertsotan egiten dakiten umore bakarra emakumeei buruzkoa denean (kantuan erantzunez espezie hori isilarazteko dohain berezia izan dut beti)... Eta horrelako beste asko. Badirudi etengabeko demostrazioa egin beharra dugula.

“Zuk daukazu potroak hainbeste jenderen aurrean kantatzeko” esaldia da gehien entzun izan dudana, eta zenbat aldiz oroitu naizen Estitxu Arozenak Kursoalean kantatutako bertsoaz: “Ni ziur nago egunen baten erakutsiko dugula/ bertsolaritzak barrabilekin zerikusirik ez dula”. Eta horretan ari gara bertso eskoletan, plazetan, tabernetan... aukera dugun leku guztietan. Azken urteetan lan handia egin bada ere egiteko gehiago dugulako, batez ere entzulea sentsibilizatzen.



### *Nerea Zubizarreta Artetxe, Azkoitiko lehen alkate emakumea*

Nik ere, emakume izateagatik, jasan behar izan dut diskriminazioaren zama, nola ez. Gazteak ginen garaiko legedia diskriminatzailea zen, eta gizartea bera ere bai. Oro har, denok esparru juridiko diskriminatuan bizi ginen sasoi hartan. Halere, beti izan dut aberriarekiko eta gizartearekiko maitasuna eta horien alde lan egiteko grina, eta hainbat neurritako konpromisoak hartuta igaro ditut urteak.

Pertsona politikoa naizela sentitu izan dut beti, eta hala naiz oraindik ere. Diktadura beltzean bizi izan behar izan genituen gazte ginen urteak, baina lanean aritu ginen eta konpromisoa erakutsi genuen; isilean edo klandestinitatean batzuetan, eta agerian besteetan. Sindikalismoan, politikan eta kulturaren munduan murgildu nintzen, garbi izanda aurrerapauso guztiek gizon-emakumeen berdintasuna lortzera bidean egindakoak izan behar zutela. Eta Elizak garai ilun haietan emandako babesa eskertu nahi dut lerro hauen bidez. Izan ere, haren babesean Kimu elkarteak sortu genuen, eta hainbat eta hainbat ekintza egin genituen.

Alderdi politikoak onartu zirenean, EAJra bideratu nuen konpromiso politikoa, eta afiliazioa eskatu nuen. Poliki-poliki, denborarekin, alderdi barruan lanak egin eta ardurak izan ditut, eta hainbat instituziotarako hauteskunde zerrendetan ateratzeko ere hautatu ninduten.

Azkoitiari dagokionez, 1991 eta 1995 artean alkateorde izan nintzen udalean, eta 1995-1999ko agintaldirako hauteskundeetan zerrendaburu izan nintzen. Egia esan, ohorez eta ardura handiz hartu nuen izendapena; izan ere, ardura ikaragarria zen, are handiagoa emakumea izanik. Azkoitian emakume bat zen alkategai.

Azkoitiarrek hala erabakita, eta gehiengoz, Azkoitiko lehen emakume alkatea izan nintzen. Azkoitiak emakume bati eman zion alkatetza, eta beti eskertuko diet EAJri eta herritarrei. Arduraz eta ohorez hartu nuen alkate kargua, eta jasotako konfiantza itzultzeko lanean hasi nintzen gogoz eta buru-belarri. 1999tik eta 2003ra ere alkate izendatu ninduten herritarrek. Ibilbide hari bukaera 2003an eman banion ere, urte hartatik 2007ra arte Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazio-

boan zuzendari egon nintzen, eta alderdi barruko lanekin jarraitu dut orduz geroztik. Gainera, kultura munduan, Bizenta Mogel Elkartean jarraitzen dut urteroko ekintzak antolatzen.

Egia esan behar badut, politikagintzako lan horietan guztietan ez naiz sentitu emakume izateagatik diskriminatuta, ez dut ikusi diskriminaziorik. Errespetu handiz tratatu izan naute bai taldeetan, bai erakundeetan, bai instituzioetan. Azkoitiko Udalean ez ezik, erakunde horrek dituen kanpo erakundeetan ere parte hartzea tokatu zitzaidan alkate nintzen garaian, baita Eudelen, Euskadiko Eskola Kontseiluan, Industrialdeak-en eta beste zenbait erakundetan ere. Lanean zorrotza izan naizela uste

dut, eta, beharbada, horrek lagunduko zidan diskriminatuta ez sentitzen.

Hala eta guztiz, aipatu nahiko nuke politikagintzan behin baino gehiagotan gertatu zaidala gizona inguratutako mahaiaren bueltan zegoen emakume bakarra izatea. Halakoetan, neure baitan pentsatzen nuen: “Zer sentitzen ote dute gizonetzko hauek guztiek aurrean emakume bat izanda?”.

Diskriminazio garaietan hazi ginen, eta iritsi gara gaur egungo egoeraraino. Askok aurreratu dugu berdintasunaren alorrean, baina lanean jarraitu beharra dago. Eta lan hori ez du egin behar emakumeak bakarrik; gizonek ere badute zer egin berdintasunerako bidean.



*Alazne Mujika Alberdi, Ekonomiako eta Enpresen Zuzendaritzako doktorea Deustuko Unibertsitatean eta Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko dekanordea*

Badira pare bat urte gure seme-alaba Libe eta Telmorekin eskola bidean ginela “eta, zergatik ez?” lehenengo aldiz barne-barnetik *oihukatu* nuela. 5 urte izango zituzten orduan, eta egunero Donostiako Tabakalerako obren aurretik pasatzen ginen. Egunero bezala, berrikerian ginen, eta, horretan, Telmok serio-serio esan zigun handitan museoak eraikiko zituela. “Hara ba, oso ondo”, esan nion. “Museo bat eraikitzeke hainbat modutako lanak egin behar dira, baina lasai: baduzu oraindik denbora zer profesio ikasi nahi duzun erabakitzeke”. Liberi begiratu eta galdera bota nion: “Eta zuk, zuk zer izan nahi zenuke handitan?”. Eta haren erantzuna: “Mmmm.... Nik museoak ezin ditut eraiki... neska bainaiz”. Eta hortxe izan zen nire lehen *oihua*. “Nola ezetz? Zuk museoak eraiki nahi badituzu, hala egingo duzu. Zure eskutan dago hau edo hori ikastea. *Faltaría más!*”. Pentsakor gelditu, eta zera esan zigun: “Nik Telmok eraikiko duen museoa zainduko dut”. Lasaxeago gelditu nintzen erantzun horrekin, baina zin degizuet kezka barne-barnean gelditu zitzaidala. Zergatik esan eta pentsatzen du 5 urteko neska batek profesio batzuk “multientzat” direla?

Baina gera gaitezen “zergatik ez?” galderak eragindako aldaketarekin. Eta egia esan, nire bizitza guztian, profesionalean eta pertsonalean, beti galdera hori izan dut gida: 10 urterekin, etxera joan eta amari esan nionean nesken futbol talde bat sortu eta Zarautzeko hondartzan jokatuko

genuela; edo 14 urterekin, Ikaskirol programa bukatu eta Anaitasunako nesken sekzioaren sorreran parte hartu genuenean. “Eta, zergatik ez?”, esan nion neure buruari unibertsitateko ikasketei aurre egin eta doktorego tesia egiteko aukera sortu zitzaidanean; edo 27 urterekin, tesia bukatu eta Deustuko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko zuzendaritzan idazkari edo pixka bat aurrerago dekanorde izatea proposatu zidatenean. Eta, zergatik ez? Edo 2011n, senarrak Behobiako lehen dortsala oparitu eta 20 kilometro gogorrekin aurre egiteko zirikatatu ninduean; edo 2012an, nire 40. urteurrena ospatzeko maratoiko nire lehen dortsala erosi eta korritu nuenean. Eta, zergatik ez?

Deustuko Unibertsitateko Berdintasunerako Komisionaren parte hartzeko aukera izan nuen 2015ean egindako berdintasunerako planean, eta, hobetzeko gauzak dauden arren, harro esan dezaket gure unibertsitatean, geletan naiz zuzendaritza batzordeetan, nabaria dela emakumearen pisua. Egindako azterketaren arabera, Deustuko langile guztien artean %58 emakumezkoak gara; irakasle doktore, titular eta katedradunak erdi eta erdi gara, gutxi gorabehera. Eta gelako egoera antzekoa da: ikasleen %60 emakumezkoak ditugu, salbuespen batekin: ingeniariartzako ikasketetan, emakumeak presentzia urria du oraindik. Badugu oraindik “eta, zergatik ez?” galdetu eta erantzun beharra, ez da hala?





*Salome Uria Narbaiza, baseritarren mugimenduko kide ohia*

Herri Gaztedian hasi nintzen 15-16 urterekin. Ikastaro bat egin ondoren, Beizama eta Azpeitiko lagun batzuek animatuta, taldetxo bat bilerak egiten hasi ginen. Arazo edo egoera bat aztertu eta zer egin genezakeen ikusten genuen, denari kristau eta giza ikuspegi batetik begiratu.

Emakumeok lan aldakorra izaten genuen askotan, eta horregatik ez genuen konpromiso iraunkorrik hartzen, aldi baterako bakarrik.

Anekdota moduan, 1979. urtean lehenengo hauteskundeetan Gipuzkoako herri gehienetako udaletan Herri Gaztedian ibilitako pertsonak parte hartu zutela konturatu ginen.

Emakume naizelako baztertuta ez naiz sentitu inoiz (maxismoa gizarte osoan bizi genuen). Adibidez, Azkoitian baziren emakumeek lan egiten zuten bi fabrika, baina ordutegi arraroa izaten zuten. Orduan ez zegoen ondo ikusita emakumeak ilunpetan ibiltzea kalean. Kotxe biderik ere ez zegoen orduan, eta, horregatik, baserriko emakumeok hotelera edo neskame joaten ginen.

Herri Gaztediko neska-mutilok, apaiz laguntzaileekin batera, ikastaroak egiten genituen asteburu batzuetan. Horrek guztiak lagundu zigun heldutasunera iristen, kristau eta pertsona gisa. Esan behar dut orduan ez zegoela ohiturarik gazteak bi egunerako inora joateko; horretan zortea

izan nuen nik. Gure aita oso konprometitua izan zen beti, eta liburuak erosteko eta zerbait ikastera joateko aukera osoa izan nuen beti.

Eta, ezkondu ondoren, kooperatiba munduan lan egin nuen, beti baserriarekin lotuta; ordu asko, oporrik gabe sarritan, baina oso gustura. Gure bezero denak ezagunak ziren; harreman berezia sortzen da urteetan zehar.

Eta orain erretiratuta nago. Baserrian bizi naiz, eta baratzeko lana asko gustatzen zait. Hala ere, sarritan jaisten naiz herrira. Gaztetan ikasitako konprometitzeko behar horrek iraun egiten du. Urte askoan odol emailen taldetan lagundu dut. Zerbait, parrokiari eliza garbitzen eta abar. Azken lau urteetan, berriz, erretiratuen elkartearen ere banabil, eta emakume taldetxo bat *Bizian Gora* izeneko erretiratuen mugimendu batean biltzen gara. Horrek laguntzen digu zahartzaro alai eta aberasgarria izaten.

Hori guztia niretzat ez da neketsua izan. Sentitzen dut eman baino hartu gehiago egin dudala gizartetik. Adibidez, Lourdesera gaixoei laguntzera joatea izugarritzko esperientzia polita da. Hala ere, gaixo daudenak irribarrez eta alai ikusita konturatzen zara osasuna dugunok zerbait egin behar dugula besteen alde. Animatu eta etorri gurekin, maiatzean da eta.



*Lorea Izagirre Alkorta, ELA sindikatuko langilea*

*Emakumeek zer egiteko izan dute langileen borrokan? AHALDUNDU ETA ANTOLATU*

Martxoaren 8a gainean daukagu, eta, aurrean ere aldarrikapenak edo hitz politikak han eta hemen entzungo ditugun arren, gu etengabeko martxoaren 8an bizi gara. Gure lana eguneroko borroka eta aldarrikapenei lotua dago,

eta horretarako zer hobeto antolatzea baino. Emakumeok ahaldundu, antolatu, bildu eta bat eginda lanean hasi garenean lortu ditugu gure lorpen handienak. Ezin ahaztu Gipuzkoako zahar egoitzetako langileen kanpaldiak, ma-

nifestazio eta hainbatetako protestak eta horrek guztiak emaniko fruituak. Eta orain ere hor ditugu Bizkaiko egoitzetako langileak euren indarrak batu eta borrokan... Hainbat dira adibideak, eta guztiak eredugarriak.

Egia da kalea eta lantokia direla emakumeok oraindik ere konkistatzeko ditugun guneak, baina egia da, era berean, egoera prekarioek emakumeok sindikatura gerturatu eta geure eskubideen alde lan egitera bultzatzen gaituztela. Etxea nola edo hala antolatua dugu, eta zaintza eta arreta lanak geure eginak ditugu, edo eginarazi dizkigute. Batzuetan, zaintza eta arreta lanak modu "profesionalagoan" egiten ditugu, alegia, soldata baten truke, eta beste batzuetan, berriz, gizarteak geure gain, gure roletan jartzen ditu, eta kito.

Emakumeon egiturazko egoera prekaritatea da, enpleguan eta bizitzan, bizitzan eta enpleguan. Prekario eta enpleguaniztunak gara, alegia, etxeko lanak egiten ditugu eta etxetik kanpo ere hainbat lan eta lantoki dauzkagu, soldata "duina" amets. Eta horrekin bizitzen ikasi izan dugu, baina baita egoerari aurre egiten ere; hau da, ahaldundu eta antolatu gara. Menpeko egoeretan duintasunerako lan egin dugu, eta borroka izan da horretarako tresna, borroka antolatua. Emakumeok antolatu eta egoerari, sistemari erantzun kolektiboa emateko gaude. Hau ez da egun batean hasi eta hurrengoan amaitzen den kontua: bizitzeko modu bati lotua dago. Borroka gabe garaipekin ez dugu izango. Balio dugu eta lortuko dugu.



*Intza Lizarazu Jauregi, Azkoiti-Azpeiti Iraurgi Saskibaloia Taldeko jokalaria*

Urte asko daramat kirol munduan murgilduta; saskibaloian federatuta, hamahiru bat urte gutxi gorabehera. Betidanik maite izan dut kirola egitea, eta argi dago nire bizitzako zatirik garrantzitsuenetako bat dela.

Gaur egun oraindik ere emakume eta gizonezkoen artean dauden desberdintasunez hitz egitea ohikoa da, oso nabarmenak baitira zentzu gehienetan; esaterako, laguntza publiko nahiz pribatuetan, instalazioetan, soldata berdintasunean, parte hartze mistoan eta abarretan. Eta, zer esanik ez, hor dugu oraindik irauten duen emakumeen kirolaren inguruko ikuspegi sozial zapaltzailea. "Emakumeen kirola aspergarriagoa da", "ezin dira mutilen partidak eta neskenak alderatu"... Zergatik konparatu?

Hala ere, esan behar da Iraurgi saskibaloia taldeari esker gure bailaran aurrerapauso handiak eman direla azken urteetan emakumeon kirolean. Alde batetik, neskek nahiz mutilak goi mailako ligan jokatzeko ari gara, eta klubak nesken alde apustu egitea erabaki zuen, jakinda zeinen kostu ekonomikoa handia duten bi taldeek. Beste aldetik, txikitatik lantzen da teknifikazio eskolan nesken eta mutilen saskibaloia jarduna.

Aurreko denboraldia adibide garbia da niretzat, emakumezkoen lehen mailan lehiatzeko ametsa errealitate bihurtu baitzen, eta aukera hori ez du edozeinek izan eta izango. Kasu honetan, instituzioen laguntza eta babesa be-

harrezkoak izan ziren aurrera egiteko eta maila horretan lehiatu ahal izateko. Emakume naizen aldetik, borrokarako indar handiagoa sentitzen dut, berdintasuna lortzeko gogoia, beharra. Eman beharreko aurrerapausoak hainbat direla esango nuke. Uste dut bisibilitate gutxi dugula oro har eta laguntza handiagoa behar dugula pixkanaka aurrera egiten jarraitzeko eta kirol munduan garrantzitsuak garelako sentitzeko; esaterako, egunkarietako kirol arloan leku handiagoa behar du emakumeen kirolak, albiste gehiago. Edozein detaile txiki garrantzitsua izan daiteke.

Ni neu ez naiz inoiz baztertuta sentitu; gainera, gure harrobian, saskibaloia ardatz hartuta, neskekin nahiz mutilekin lan berbera egiten da, eta hori baloratzekoa da. Egia da alderatzen hasiz gero beti aurkituko dugula desberdintasunen bat gizon-emakumeen arlo honetan. Horregatik, helburu nagusia guztion artean borrokatzen jarraitzea da, emakume nahiz gizonezko, batez ere etorkizunean emakumeek baldintza hobekak izan ditzaten. Instituzio publiko nahiz pribatuen babesa ezinbestekoa da, une oro laguntza jasotzea beharrezkoa da. Eta azkenik, ahaztu gabe, ikuslearen babesa behar da, indarririk handiena ematen duena, dudarik gabe.

Berdintasunaren itxaropena ez dudalako inoiz galduko, atzetik datozen neska gazteen erreferente sentitzen garelako.



*Eli Larrañaga eta Edurne Aranbarri, Azkoitiko emakume mahaiko kide ohiak  
Martxoaren 8an eta beste egun guztietan ere, oraindik asko egiteko!*

Argi dago mugimendu feministaren sorreratik gaur egun arte aurrerapauso nabarmenak eman direla emakumeon eskubideen aitortzearen. Mugimendu feministaren lanari esker, emakumeoi garai batean ukatuak genituen hainbat eskubide aitortu zaizkigu. Eskubide horiek aitortzearekin, ordea, berdintasun faltsuaren ideia barneratu dugu, eta horrek erabat zailtzen du desoreka egoerak identifikatu eta agerian jartzea.

Hala ere, datuek ez dute gezurrik esaten, eta betiketzeko arriskua duen egoera baten berri ematen digute: maila bereko lanaren truke soldata txikiagoa, zaintza lanak emakumeon esku, emakumeen objektualizazio bortitza, erabaki guneetako presentzia sinbolikoa eta abar. Horrez gain, ez da ahaztu behar indarkeria sexistaren kasuak asko ugartu direla gero eta belaualdi gazteagoetan.

Horregatik du berebiziko garrantzia instituzioek emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko politika publiko

eraginkorrek egiteak eta herriko emakumei hitza emateak. Baliabideak indartu behar dira, eta prebentzio eta sentsibilizazioan sakondu. Udalek, herritarrengandik gertuen dauden instituzioak izanik, ardura berezia dute desorekak amaitzeko neurriak hartzeko orduan. Eta ezinbestekoa da emakumei hitza emateko guneak eskaintzea; adibidez, emakumeen mahaia.

Ilusio handiz bizi dugu Azkoitiko mugimendu feministaren susperraldia. Sostenepe talde feministak, ausardia handiarekin, azken hilabeteotan ekarpen garrantzitsuak egin dizkigu azkoitiarroi: sexistak diren erasoak identifikatu, sentsibilizazio kanpainak antolatu, itxuraz “normalak” diren egoeren atzean ager daitekeen sexismoa ikusarazi, eta abar. Eta hori guztia duela aste batzuk Martxoaren 8an egin zuten juntadizo feministan transmititu zituzten ilusioarekin. Aupa neskek!



*Karmen Irizar Segurola, irakaslea eta Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari ohi*

Emakume izateak ez dit oztopo handirik ekarri euskalgintzan han-hemenka aritu naizenean. Maxixatzen dena zegoen egiteko, guztiok ginen beharrezko, eta Topagunean, berriz, presidente kargua hartzeko itxarote zerrendarik ez da sekula izan; ez da, beraz, aparteko lorpen pertsonala izan horra iritsi izana.

Oker ulertu ez badut, erreportaje honen zioa emakume bezala gure esparruetan nolako bizipenak izan ditugun azaltzea da. Nire esperientzia beti izan da ona, tarteko hamaika bere usteko pailazo batzuk gorabehera.

Kontua da azken hiruzpalau urteetatik hona ez zaizkidala askorik inporta emakume bezala izan ditzakedan zailtasunak. Askoz kezka handiagoa ematen dit jakiteak arrastorik utzi ote dudan egon naizen tokietan eta izan ditudan ardura eta zereginei dagokienez, eta zerbait geratu bada zer geratu ote den. Izan ere, irudipena daukat

euskalgintzaren eta feminismoaren gorakada honetan berez datorren olatuarekin batera dantzan ari garela emakumeak. Hizkuntza-kultura eta generoaren periferian, arautik kanpo ere beste zerbait badela esanez hazitako emakumeon jardunak beste kolore bat ezarri beharko lioke inguruari, eta, itsasoko kresalaren usainaz gain, erreka bazterreko ur gezarena ere hartu beharko luke jendeak, baina ez dut uste oraindano horrelakorik lortu dugunik, ez eta epe laburrean bide hori jorratzeko asmorik dugunik ere. Lekutxoa egin digute sisteman, eta bertan goxo egin dugu. Izan daiteke sistematik kanpo ospel dagoelako, edo izan daiteke mendeetan eman diguten tokitik munduari egin diogun ekarpena guk geuk ere gutxietsi egin dugulako, erdigunean egon direnen jarduna garrantzitsuago izan dela sinetsita. Hala bada, badugu kezkatzeko motiborik.



Olaia Etxezarreta Ibañez,  
New Yorken bizi den azkoitiarra

*"Aitortu beharra dut ingelesa ikasteko eta New York ezagutzeko gogoaz gain banuela aldaketa baten beharra ere"*

**Olaia Etxezarreta, 24 urteko azkoitiarra, New Yorken bizi da duela lau hilabetetik, familia estatubatuar bateko haurrei euskara irakasten. Haurren ama euskalduna da, eta, beraz, umek txikitatik hitz egin dute euskaraz amarekin.**

TOKITTEKO PUNTETIK

► Laida Beristain Zubizarreta

**Non bizi zara gaur egun? Zein izan zen horra bizitzera joateko arrazoiak?**

New York estatuan bizi naiz. Hiriaren izena Mamaroneck da –oraindik ez naiz ondo esateko gai–, eta New York hiritik ordu erdira dago. Azaro hasieran iritsi nintzen; ia lau hilabete daramatzat hemen. Datorren azaroan izango naiz bueltan, urtebetekoa baita esperientzia hau.

Betidanik izan dut New York hiria ezagutzeko ilusioa, baina erabakia hartzeko arrazoi nagusia ingelesa ahalik eta ondoena ikastea izan zen. Egia esan, Estatu Batuetako ingelesa asko gustatzen zait, eta ikasteko gogoaz piztu izan dit beti. Eta lan honek horretarako ematen zidan aukera tentagarria iruditu zitzaidan. Izan ere, familiak ikasteko aukera bermatzen dizu, hau da, zuk aukeratuak unibertsitatean ikasteko aukera. Hala ere, aitortu beharra dut ingelesa ikasteko eta New York ezagutzeko gogoaz gain banuela aldaketa baten beharra ere.

**Asko kostatu al zitzaizun erabakia hartzea?**

Ba, egia esan, ni ezagututa, uste baino buelta gutxiagoko erabakia izan zen. Nik uste behin erabakia hartu eta gero etorri zitzaizkidala beldur guztiak. Izan ere, betidanik beldurti hutsa izan naiz etxetik urruti denbora luze-rako joateari dagokienez. Denbora luzeena non emango nuen... Londresen 10 egun edo?

**Zer moduzko esperientzia ari da izaten?**

Orain arteko esperientzia nahiko positiboa izaten ari da. Egia da, ordea, askotan gauzak ez direla norberak uste bezala joaten. Horrek badu alde txarra, baina baita ez hain txarra ere, ezta? Bueno, hori pentsatzen dut neure burua animatzeko behintzat –herrimina abisatu gabe

etortzen zaidanean–. Baina, oro har, leku berriak ezagutzeko nik uste beti dela aberasgarria, eta esperientzia honetatik ahalik eta gehiena ikasteko ilusioarekin nago oraindik.

**'Au pair' moduan lan egiten duzu. Zer egin behar izaten duzu etxean?**

Nire lana, labur esanda, familiako bi haurrekin euskaraz aritzea da: eskolatik ateratzen direnean haiekin egon, hamaiketako eta meriendak antolatu, etxeko lanekin lagundu... Gurasoak iristen diren artean umeen ardura hartzea, azken batean.

Egia esan, etxean bat gehiago sentiarazten zaituzten momentutik, zeu ere ahalik eta gehiena ematen saiatzen zara. Hemengo familia edozer behar duzunerako laguntzeko prestagertzen da, bai umekikiko harremanean, bai zuk zure hemengo bizipenari ahalik eta probetxu handiena ateratzeko ideiak edo gomendioak ematean.

Haiei esker dut, egia esan, New York hiria eta inguruak ezagutzeko aukera. Beraz, nahiz eta ez den norbere erara bizitzea bezalakoa, bizipen honek ematen dituen alde onei heldu behar zaie.

**Zergatik nahi zuten gurasoek umek euskara ikastea?**

Ama euskalduna da, eta aita estatubatuarra. Horrek euskararen eta euskal kulturaren –janaria,

musika, liburuak, filmak...– gaineko interes handia pizten die haurrei. Amarekin txikitatik euskaraz aritu izan dira umeak, eta nik uste horixe sustatzen jarraitzea eta hobetzea nahi dutela, egunero haiekin arituko den beste norbait izanda. Amaren familia euskalduna denez, udaro joaten dira Euskal Herrira ere.

**"ESTATU BATUETAKO INGELESA ASKO GUSTATZEN ZAIT, ETA IKASTEKO GOGOAZ PIZTU IZAN DIT BETI"**

### **Erraz ikasten al dute euskara?**

Nahiko erraz barneratzen dituzte hitz nahiz espresio berriak. Benetan oinarri polita dutela iruditzen zait. Zerbait oso ondo azaldu nahi dutenean, ingelesera jotzen dute eta errazago moldatzen dira, baina euskaraz ia dena ulertzen dute.

Oraindik gogoan dut lehenengo egunean haurrak entzutean aho zabalik geratu nintzela. Testuinguru erabat amerikarrean, sekulako kontrastea egin zidan euskaraz hain ondo egiten zutela ikusteak. Eta euskarari esker sentitu nuen hasieratik umeenganako gertutasun hori.

### **Estatu Batuetako familien eguneroko bizitza edo ohiturak hemengoan antzekoak al dira?**

Etorri nintzenean, guztia erabat desberdina iruditu zitzaidan. Norbaitek lehen egunetan galdetu izan balit, familiak oso desberdinak direla esango nukeen. Baina ez dakit, pixkanaka gero eta desberdintasun gutxiago ditugula iruditzen zait. Agian ni familia erdi euskaldun batean bizitzeak badu eragina.

Hala ere, desberdintasun batzuk aipatzekotan, afaria adibidez ia horko meriendaren orduan izaten da, eta hurrek ez dute ohiturarik kalean jolasteko; etxean egiten dituzte arratsalde- eta gau-pasak *-playdate* edo *sleepover* esaten diete-. Distantziaren ikuspegia ere oso desberdina da hemen: Euskal Herrian leku bat urrun dagoela iruditzen zait, baina hemen erabat gertu dagoela ematen du. Adibidez, 45 minutuz eskolaz kanpoko jardueretara joatea ohikoa da, eta askotariko ekintzak di-

tuzu aukeran: denetik egin dezakezu. Pentsatzen jarrita, badaude, bai, desberdintasun batzuk.

### **Denbora libre asko izaten al duzu?**

Goiza, umeak eskolatik atera arteko denbora, neuretzat izaten dut. Orduantxe aprobetxatzen dut klaseetara joan eta inguruko jendearekin egoteko. Asteburuak ere libre izaten ditut, eta, beraz, ahalik eta gehiena aprobetxatzen saiatzen naiz New York hirian txoko desberdinak deskubritzen joateko. Bestalde, inguruko estatuak bisitatzeko aukera polita izaten da asteburu zein jaiegunetan ere: Philadelphia, Boston....

### **Asteburuan lagunekin ateratzen zara, orduan. Erraza al da hor jende berria ezagutzea?**

Hemen inguruan nire adin inguruko jende pilo bizi da familiekin. Beraz, jende berria ezagutzea nahiko erraza da. Frantziako jende asko bizi da inguruan, eta italiarrak, brasildarrak, mexikarrak, hegoafrikarrak, australiarrak eta espainiarrak ere dezente dira.

### **Gomendatuko zenuke beste herrialderen batera 'au pair' moduan lan egitera joatea?**

Ez dut betiko esaldi aspergarriarekin bukatu nahi, esanez bizitzan egin beharreko zerbait dela, erabat esperientzia positiboa dela... Izan ere, leku guztietan bezala, hemen ere badaude oztopoak, eta etxetik urrun egoteak oztopo horiek zailtzen ditu batzuetan. Baina, egia esan, Ipar Amerikara etorri eta bertan bizitzea hau ezagutzeko aukera oso ona da: esperientzia berriak dituzu, egoera jakin batzuei bakarrik aurre egin behar diezu... Zalantzarik gabe, benetan asko erakusten dizun esperientzia da.





**Kamran Arif,  
Azkoitian bizi den pakistandarra**

*"Gaztelera errazagoa dela dioten arren, bertakoa egin zitzaidan errazagoa eta erakargarriena: euskara, alegia"*

**Kamran Arif, pakistandarra jaiotzez, Gujarateko herri txiki batetik etorri zen Azkoitira, duela hamar urte. Hasieratik euskaraz aritzea ikaragarri gustatzen zitzaiola eta, lagunekin ez ezik etxean ere anai-arreben artean beti euskaraz aritzen zen, eta horrela asko hobetu zuen euskara maila.**

► Maite Rodriguez Soreasu

### **Zer dela eta utzi zenuen zure jatorrizko herria?**

Aita lehenagotik bizi zen Azkoitian, hemen lan egiten zuen eta. Horregatik etorri ginen familia guztia Azkoitira, elkarrekin bizi ahal izateko eta aitarengandik mila kilometrorra ez egoteko. Horrez gain, beste arrazoi nagusia ikasketak izan ziren. Izan ere, ni jaiotzen herri eta inguruneak ez zituen Europako herrialde askok dituzten baliabide akademiko onak; hemen ikasketa hobeak lortzeko aukera dago. Horiexek izan ziren jaioterria, txikitako lagunak, jolasean ibiltzen ginen txoko ahaztezinak eta beste zenbait gauza uzteko arrazoiak.

### **Azkoitira iritsi zinenean, zerk eman zizun atentzio handiena?**

Azkoitira iristea beste mundu bat zapaltzea bezalakoa izan zen, ez bainuen ezer ezagutzen. Egunero zerbait berria ikustean, kuriozkoa iruditzen zitzaidan, eta aldi berean interesgarria. Euskal tradizioak eta kulturak eman zidaten atentzio handiena; nik nituenekin alderatuta, erabat ezberdinak eta dibertigarriak iruditzen zitzaidakidan.

### **Euskararen berrikerik bazenuen hona iritsi aurretik? Zailtasun asko izan zenituen?**

Iritsi nintzenez, ez nekien ez euskaraz ez gaztelera, baina bai, ordea, ingelesez. Ume batek lehenengo aldiz hitz egiten ikasten duen bezalaxe, hutsetik hasi nintzen euskararekin. Normala den bezala, hasiera gogorra eta oso zaila egin zitzaidan. Ikaragarri gustatzen zitzaidan euskaraz aritzea, eta, horrela, lagunekin ez ezik etxean ere anai-arreben artean beti euskaraz arituz, asko hobetu nuen. Asko estimatzen dut hobetzeko prozesu horretan guztian izan nituen irakasle batzuen laguntza handia eta haiek nirekin eginiko esfortzua. Geroago ekin nion gaztelera ikasteari, eta, gaztelera errazagoa dela dioten arren, bertakoa egin zitzaidan errazagoa eta erakargarriena: euskara, alegia.

### **Erlijoari dagokionez, meskita bat ireki berri dute Floreaga auzoan. Zer-nolako garrantzia du horrek zuretzat?**

Egia esan, txikitatik irakatsi didate besteen eskubideak errespetatzen eta berdintasunez jokatzeko. Eta Azkoitiko jende musulmanarentzat otoitz egiteko ireki berri den meskita beharrezko eraikina da haien sinesmenak eta balioak nolabait betetzeko. Izan ere, beste edonork erlijioan sinistu edo ez erabakitze eskubidea duen bezala, bertako musulmanek ere normal otoitz egiteko eskubidea dute, nire iritziz.

### **Zure ustez, Azkoitian ba al dago kultura desberdinen arteko harremanik?**

Azkoitian eskuzabaltasun handiz jokatu nahi izan da kultura ezberdinen arteko trukeari dagokionez, truke hori sustatzeko ekintza batzuk antolatu izan ditugulako eta kultura ezberdinen arteko aldeak ondo eramaten saiatzen garrelako. Horren guztiaren helburua Azkoitian aniztasunean bizi izatea da, eta hori oso aberasgarria iruditzen zait.

### **Azkoitiarrek harrera ona egin al zizuten etorri zinenean?**

Azkoitian bizi ginen lehenengo familia pakistandarra izan ginen, eta ez dut inoiz ahaztuko hasiera hartan azkoitiar gehienek aldetik jaso nuen ongietorria eta hurbiltasuna.

Baina, denborarekin, nire jaioterrian edo munduko edozein tokitan bezala, denetarikoa jendea ezagutu nuen, batzuk irekiagoak beste batzuk baino. Garai hartan, gainera, kaletik pasatzean pertsona batzuk begira geratzen zitzaidakidan batzuetan, nongoa ote nintzen pentsatuz edo. Euskaraz adeitasunez agurtzen nituenean, irribarrea zabaltzen zitzaien, eguna alaituko banie bezala [barrez].

### **Azkoitiko tokirik kuttunena?**

Azkoitiko txoko bakoitzak du berezitasuna eta aparteko xarma. Dena den, gehien gustatzen zaidana zera da: Azkoitia inguratzen duten mendietatik ikusten den Azkoitia bera, inguruko paisaia paregabearekin.

**"BESTE  
EDONORK  
ERLIJIOAN SINISTU  
EDO EZ ERABAKITZEKO  
ESKUBIDEA DUEN BEZALA,  
BERTAKO MUSULMANEK  
ERE NORMAL OTOITZ  
EGITEKO ESKUBIDEA  
DUTE"**

**"AZKOITIRA  
IRISTEA  
BESTE MUNDU  
BAT ZAPALTZEA  
BEZALAKOA IZAN ZEN,  
EZ BAINUEN EZER  
EZAGUTZEN"**



## Armairuak eta botatzen ez ditugun trapu zaharrak Zergatik sartzen dugu jendea armairuan?

► Garazi Arakistain Lopetegi

**B**aten bat armairutik atera dela esaten dugunean, zer ari gara esaten? Non daude armairu horiek? Eta garrantzitsuena: armairutik ateratzeko ezinbesteko baldintza zein da? Pentsamendu sinbolikoa erabiltzen badugu eta geure burua armairu batean irudikatu, argi geratzen da armairutik atera ahal izateko armairu batean egon behar dugula eta han egoteko noizbait han sartuak izatea dela ezinbesteko baldintza.

Pertsona guztiok armairu ikusezin bezain sendo batzuetan gaude sartuak imajinario kolektiboan, ateratzea erabakitzen dugun arte edo betiko! "Armairutze" prozesua haurra jaio aurretik hasten da; zehatzago, haurren sexua jakiten den momentuan. Une horretatik aurrera, neska bada etorkizunean mutilak gustatuko zaizkiola irudikatzen dugu, eta mutila bada, alderantziz. Ospitaleetan dauden haur guztiak heterosexual potentzialak direla pentsatu ohi dugu, kontrakoa frogatu arte!

Horrela, beraz, bakoitza bere armairuan hezten da (nesken armairuak nahiko arrosak izan ohi dira, eta mutilenak pixka bat urdinagoak), eta armairu horietan gauza asko egon daitezke (baina beste asko ez), eta askotan ez ditu armairuan dagoen pertsonak aukeratzen. Denok dakigu armairuak zurrinak, gogorrak eta karratuak izan ohi direla eta beraz nahiko itogarriak izan daitezkeela. Barruan, barruak jaten ari denari arnastu ezina eta kabitu ezina sortuz ateratzea erabakitzen duen arte. Momentu hori zaila izan daiteke, horrenbeste denbora armairu batean igarotzeak zurrundu egin gaitzakeelako, eta, jakina, kontuan izan behar dugu guk ateratzea erabakiz gero beste guztiak beren armairuetan jarraituko dutela eta haien erantzunak karratuak eta zurrinak izan daitezkeela, "armairuko pertsonak" direlako. Ondorioz, gure pertsonaren inguruan eraikitzen den markoaren ertzak apurtzean, beste pertsonen ertzekin egiten dugu tupust. Badirudi haurrentzako ipuin bat ari naizela kontatzen eta ez iritzi artikulua bat idazten, baina batzuetan aholkagarria da gauzei beste ikuspegi batetik begiratzea itsutasun kolektiboari aurre egiteko.

Pertsona guztiok armairu ikusezin bezain sendo batzuetan gaude sartuak imajinario kolektiboan, ateratzea erabakitzen dugun arte edo betiko!

Ertzeekin jarraituz, lehenago aipatu dudan ideari heldu nahi nioke; hau da, pertsona guztiak jaiotzez heterosexualak gara eta pentsatzeko joera horri eta ospitaleak haur heterosexual potentzialez beterik daudela irudikatzearen zorakeriari. Ideia hori izatez barregarria izango litzateke gure jendartean heteroarauak aginduko ez balu. Denok dakigu normala heterosexuala izatea dela, ezta?

**PERTSONA GUZTIOK ARMAIRU IKUSEZIN  
BEZAIN SENDO BATZUETAN GAUDE  
SARTUAK IMAJINARIO KOLEKTIBOAN,  
ATERATZEA ERABAKITZEN DUGUN ARTE  
EDO BETIKO!**

Zer esan nahi du *normala* hitzak? Normak (arauak) noizbait ezarriak izaten dira, baina denboraren poderioz naturalizatu egiten dira, eta ezarritako hori jendartearen gehiengoak betetzen duenean *normatibo* edo *arauemaile* bilakatzen da, hau da, jarrerarik ohikoena, hau da, normala.

Beraz, ohartu behar dugu heteroarauaz mintzo garenean (*heteronorma* gaztelaniaz) geuk sorturiko mundu ikuskera bati buruz ari gara. Mundu ikuskera horrek jendarteko pertsona guztioi eragiten digu, eta dimentsio politiko bat du: heterosexualitatea legitimatzen edo saritzen duena eta beste aukera guztiak bigarren, hirugarren edo azken aukera bilakatu. Non ikus dezakegu hori? Arreta jarritz gero, leku guztietan: iragarkietan, pelikuletan, telesailetan, liburuetan, aldizkarietan, lantokian, kalean, 4 urteko neska bati "nobiorik ba al duzu?" galdetzean...


Amaitzeko, zuen armairuei begirada bat botatzeko eta trapu zaharrak eguzkiaren argipera ateratzeko eskatu nahiko nizueke. Izan ere, zergatik sartzen dugu jendea armairuan?

# URAK BARETUTA, ZABALIK DA FLOREAGAKO MESKITA


Joan den urtarrilaren 10ean ireki zuten ofizialki Azkoitiko meskita, eta, ordutik, Zestoako, Azpeitiko eta Azkoitiko musulmanak egunero bost aldiz biltzen dira Ala jainkoari otoitz egiteko. Zeresan handia eman du azken urteetan herrian lokal horrek, eta bizilagun batzuen artean errezeloa eta ezinegona piztu zuen: ezin ahaztu 2015ean hainbat bizilagunek meskitaren aurka auzoan egin zuten elkarretaratzea. Hori dela eta, Maxixatzen harremanetan jarri da orduko bizilagunen bozeramailea izan zenarekin, gaur egun gauzak nola dauden jakiteko, baina ez du nahi izan aldizkariarekin hitz egin.

► Olaia Juaristi Zabala

IZENA TA DIZENA







Meskita barrura sartu gara, eta, tea eta opilak eskainiz, harrera beroa egin digu Hasni Raba meskitako lehendakariak (Aljeria, 1973). 1.260 metro karratu ditu lokalak, eta, erreztatzeko gelaz gain, aldagela bat eta bainugela dituzte. Nahi zutena baino txikiagoa da lokala: “Batzuetan ez gara ondo sartzen”, dio Rabak.

Lehendakariak azaldu du “diru asko” gastatu dutela meskita eraikitzeko, akustika aldetik batez ere. Dekorazioa ere dena eskuz landutakoa da, baina ezagun batzuek lan horretan borondatez esku bat bota ziotela esan du. Azkoitiko “oso meskita sinplea” dela dio Rabak.

#### Jendetsuenak, ostiralak

Ostiraletako khotba edo meza berezia eta sakratua da musulmanentzat, eta luzeagoa ere bada: 15-20 minutu artekoa izaten da. Horregatik, ostiraletan jende gehiago joaten da meskitara, 300 lagun inguru, eta gela osoa betetzen da. Herrialde askotako musulmanak elkartzen dira: aljeriarrak, marokoarrak, pakistandarrak...

Erlijioak egunero bost aldiz otoitz egitera behartzen ditu musulmanak, haur, gazte nahiz heldu. “Profetak 50 otoitzaldi zirela esan zigun, baina Ala jainkoak bostera gutxitu zituen. Beraz, guretzat bost ez da asko”, dio Rabak. Hamar minutuko errezoak izaten dira gutxi gorabehera. Emakumezkoak, ordea, ez daude behartuta egunero bost aldiz meskitara joatera; etxean erreztatzeko aukera dute. Hamar bat emakume joaten dira meskitara, baina ezin dute gizonekin batera erreztatu. Ez dira nahasten bi sexuak, eta bi taldetan berezita erreztaten dute. Imama mihrab edo aldarean jartzen da otoitzean, eta Korana irakurtzen die. Guztiek Mekara begira otoitz egiten dute, lerroetan jarrita.

#### Bizilagunekin bizikidetzat ona lortzea helburu

Bizilagunek meskitaren inguruan agertutako erreze-loak normaltzat hartu ditu, eta denborarekin bizikidetzat ona lortzeko esperantza erakutsi du, gainera. 2015ean elkarretaratzeak egin zituzten bizilagunek auzoan, eta mezu arrazistak entzun ziren. Otsailaren 4an ateak irekitzeko eguna antolatu zuten, eta, keinu horrekin, herri-tarrei meskitan zer egiten duten erakutsi eta azaldu nahi izan zieten. “Jendeak jakitea nahi dugu zer egiten dugun meskitaren barruan, eta zerbait galdetu nahi badigute ere, gu prest gaude edozer azaltzeko. Meskita hau ez da guretzat bakarrik: azkoitiar guztientzat da. Edonoiz etor daitezke meza entzuterara ere, jakin dezaten hemen ez dugula egiten ezer arrarorik”.



Lehendakariak uste du “normala” dela bizilagunak kextatzea. Dioenez, ulertu zuten jendearen jarrera hura: “Jendeak ez zuen meskitaren berri, eta barkamena eskatu behar diegu horregatik. Obran ere etorri ziren, gazteak zein helduak, ‘zer da hau?’, ‘Zer egiten ari zarete?’ eta halakoak galdetzeraz. Gauza txarrak ere entzun behar izan ditugu, baina, tira, beti daude gauzak gaizki egiten dituzten pertsonak, eta berdin du zein erlijiotakoak diren. Ez dugu ezer orokortu behar. Jende ona eta txarra dago gizartean. Lokal hau guztiena da, eta hona sartzeko ez dute baimenik eskatu beharrik. Oraindik erreze-lo handia dago auzoan, eta badaude gaizki begiratzen dituztenak ere. Baina denborarekin hobetuko dugula bizikidetzat hori, seguru”.

#### Harreman ona udalarekin

Udalarekin hasieratik “oso harreman ona” izan dutela dio lehendakariak. “Erraztasunak eman dizkigute edozer-tarako”, esan du. “Zerbait eskatzen genuenean, segituan etortzen ziren. Oso onak dira; gurekin oso ondo portatu dira”. Gobernu aldaketak eraginik izan ote duen galdetuta, esan dute ez dutela aldaketarik antzeman, “denak ondo” jarraitu duela.

Duela hamar urte hasi ziren meskita eraikitzeko baimena eskatzen udalean, 2007an. Gaur egungo lokala erosi nahi zuten, modu pribatuan, eta ondoren meskita eraiki. Meskita eraikitzeko baimena udalak eman behar zien, ordea, eta “pixka bat kostatu” zitzaie la aitortu du Rabak. “Udalak ez zuen hasieran gaia serio hartzen, baina gerora, 2013an, proiektuari heldu zioten, eta ordutik dena errazagoa izan da. Azkenean, 2014aren amaieran eman ziguten meskita eraikitzeko obraren lizentzia”.



Lide Rekondo:

“Urtetik urtera ipuinen maila gorantz doa, eta ez nuen espero saridunen artean egoterik”

Otsail hasieran izan zen Bizenta Mogel ipuin lehiaketako sari banaketa, eta Lide Rekondo Jauregik (Azkoitia, 1990) bigarren saria eskuratu zuen. Pozik jaso du saria, eta lehiaketan parte hartzen jarraituko duela azaldu du.

► Olaia Juaristi Zabala

GALDETU AHALA ERANTZUN

**Zer dela eta aurkeztu zara Bizenta Mogel ipuin lehiaketara? Zenbat aldiz aurkeztu zara?**

Bizenta Mogel lehiaketara aurkezten naizen laugarren aldia izan da aurtengoa. Egia esan, lehenengo aldian kasualitatez aurkeztu nintzen. *Hitza*-n irakurri nuen albisteak ipuinak aurkezteko epea baino aste batzuk lehenago, eta, denbora nuenez, ipuintxo bat idaztea pentsatu nuen. Lau-hamar orri bitartekoak izan behar dute, eta biloba batek bere aitonari idatzitako gutuntxo bat aurkeztu nuen. Orduan ere bigarren saria lortu nuen, eta, orduetik, urtero hartzen dut tartetxo bat uda amaieran, ipuinak normalean urri amaieran aurkeztu behar izaten dira eta.

**Nola izan zen 'Inoiz ez da berandu' ipuina sortzeko prozesua?**

Buruan ipuinaren ideia eduki eta zuk nahi duzun hori paperean borobiltzeko, denbora behar izaten da. Nik, hasieran, eskematxo bat egiten dut ipuineko gertakizun nagusiekin; irakurlearengan ordenak badu garrantzia, kontakizun osoan haren arreta lortzea baita helburua. Aurtengo ipuinean, gainera, idazteko bi estilo nahastu ditut: letra arruntez gertakizunak eta letra etzanez pentsamenduak. Bi gauza horiek hasieratik garbi nituen, eta gero ipuina idazten hasi nintzen, deskribapenak sartuz eta elkarriketak osatuz.

**Zer kontatzen du ipuinak? Fikzioa ala errealitatea da?**

*Inoiz ez da berandu* errealitatea da, du-darik gabe. Urteak herritik urrun pasatu dituen neska bati buruzko istorioa da; nahiz eta fisikoki ez egon munduaren beste puntan, herriko lagunekin harremana galduz joan da urte horietan. Etorkizuneko plan guztiak zapuztu ondoren, etxera itzultzea erabakitzen du, baina pauso hori ematea ez zaio hain erraza egingo.

**Zein helbururekin aurkezten dituzu ipuinak lehiaketara?**

Idazten geroz eta gehiago gozatzen dudala aitortu behar dut. Gainera, neure buruarengan ere sumatzen dut halako

eboluzio bat. Badakit Bizenta Mogel lehiaketan ipuinen maila gorantz doala urtetik urtera, eta ez nuen espero saridunen artean egoterik. Sekulako poza izaten da udalitik deitu eta zure lana saritua izan dela esaten dizutenean, norbaitek zure ideia baloratu duen seinale. Gainera, Euskal Herri osoko jendea aurkezten da, eta hiru onenen artean herritar bat egoteak oraindik eta poz handiagoa ematen dit.

**Beste literatura lehiaketa batean parte hartu al duzu inoiz?**

Zarauzko Xabier Lizardi sariketara ere aurkeztu izan dut ipuinen bat edo beste; haur eta gaztetzontzako literatura lehiaketa izaten da hangoa. Idazteko asko gustatzen zaidan generoa da, aukera asko ematen baititu.

**Ipuinak idazten jarraituko al duzu aurrerantzean?**

Irakurtzea ikaragarri gustatzen zait, eta askotariko nobelak irakurtzen ditut. Idaztea, ordea, zailagoa da. Noiz-bait ideiarenekin bat bururatzen bazait, koadernotxo batean apuntatzen dut, eta dagoeneko baditut bi ideia edo. Orain denbora hartzea falta zait horiek borobiltzeko.

Denbora ere behar dela azpimarratu nahi dut; izan ere, norberak idatzia handik egun edo aste batzuetara irakurri ondoren, sentsazioak ere alda daitezke.

**Eta lehiaketara ipuinak aurkezten segitzeko asmoa al duzu?**

Bizenta Mogel lehiaketan parte hartzen jarraituko dut, noski, eta, nork daki, bitartean beste ipuintxoren bat idazten badut, beste literatur lehiaketetara aurkezten ere has ninteke.

Azkenik, tartetxo hau aprobetxatu nahiko nuke eskerrak emateko lehiaketa hau martxan jartzen eta mantentzen lan egiten duten guztiei. Eta, era berean, herritarrek parte hartzera animatu nahiko nituzke, herrian badelako jende sortzailea.

**"SEKULAKO POZA  
IZATEN DA UDALETIK  
DEITU ETA ZURE LANA  
SARITUA IZAN DELA ESATEN  
DIZUTENEAN, NORBAITEK  
ZURE IDEIA BALORATU  
DUEN SEINALE"**

## Mikel Sudupe Martija (Azkoitia, 1948), Bizenta Mogel ipuin lehiaketako epaimahaikidea

### "SAIATZEN DEN OROK IRABAZIAK DITU GURE ANIMOAK ETA TXALOAK"

#### **Nolatan hasi zinen Bizenta Mogel lehiaketako epaimahai-kide?**

1982. urtean hasi zen Bizenta Mogel lehiaketa, eta urte hartan ez nintzen epaimahaikide izan. Hurrengo urtean, ordea, M<sup>a</sup> Pilar Cuendek deitu zidan, eta Patxi Alberdi salestarrarekin batera orain arteko bideari eutsi diogu. Joxe Agustin Arrieta apaizak bakarrik jarraitu zuen lehenengo epaimahaikideetatik, eta 1984an, berriz, Reme Larrañaga ere batu zitzaigun.

#### **Zenbat lagun zaudete taldean?**

Urteetan kopurua aldatzen joan da. Gaur egun lau kidek osatzen dugu taldea.

#### **Zein osagai izan behar ditu ipuin on batek?**

Gai nagusiari ematen zaion tratua, irakurlearengan sortzen duen interesa, narratzailearen erritmoa, pertsonaien eta kokapenaren deskribapena eta euskara maila. Narratzaileak gai izan behar du irizpide horiek guztiak modu egokian josteko hizkuntzaren bitartez. Hori guztia kontutan hartuta erabakitzen dugu zein izango diren hiru ipuin sarituak.

### "URTERO EGON OHI DIRA GOI MAILAKO IPUINAK"

#### **Urte hauetan guztietan lehiaketara aurkeztu direnen artean, ba al duzu ipuin kuttunik? Zergatik?**

Mota askotariko ipuinak azaltzen dira; esango nuke amodiozkoak direla ugariak. Urtero egon ohi dira goi mailako ipuinak. Kuttunena? Gauzak ahaztu egiten dira, eta hogeita hamabost urtean ipuin on asko izan dira. Baina, bat aukeratzekotan, aurtengo irabazlearen *Iraganaren orbela* aipatuko nuke, Markinako Iraitz Legarrarena: bi istorio desberdin elkarri loturik, maitasunaren inguruan aurrera eta atzera denboran mugituz. Bizitzaren eta naturaren arteko konparazio bat bezala, udazkena, orbela, bizitza... Sentsibiltate handiz eta euskara bikainean taxututako lana da.

#### **Hainbeste urtean, zerbaitek harritu al zaitu? Anekdotarik-edo ba al duzu?**

Gure lana isila da. Inoiz ez dugu kexarik jaso. Hala ere, ipuinak birritan irakurtzea tokatu izan zaigu, guk saritutakoren bat beste lehiaketa batean saritua izan zelako, eta, beraz, ordezkoak aukeratu behar izan genituen.

#### **Zenbat lan jaso dituzue aurten? Nolako izan da bilakaera? Hazten edo gutxitzen joan da ipuin kopurua?**

Aurten 33 ipuin aurkeztu dira, eta lehenengo urtean zortzi izan ziren. Urtez urte gorabehera batzuk egon ohi dira, baina gaur egun lehiaketa nahiko egonkortua dago.



#### **Aholkuren bat emango al zenieke lehiaketara aurkeztu direnei?**

Idazteari ez uzteko eta sarituak ez izan arren imajinazioa lantzen jarraitzeko. Horrez gain, ipuin irakurterraza izatea baldintza behinena denez, euskara asko lantzea ere gomendatuko nuke.

#### **Euskarari dagokionez, nolako maila dago?**

Denetarik azaltzen zaigu. Ohartzeko gara batzuek ahalegin berezia egiten dutela. Beste batzuek, aldiz, ez dute beharrezko maila ematen: hitzetan, joskeretan.. Nahiko trakets idatzitako ipuinak ere iristen dira. Dena den, oro har maila nahiko ona dela baieztatuko nuke, eta saiatzen den orok irabaziak ditu gure animoak eta txaloak.

#### **Zer da zuretzat epaitzeko zailena? Eta errazena?**

Lan nekezena ipuin denak irakurtzea izaten da. Onenak aukeratzeko ez digu hainbeste lan ematen. Urtero izaten dira bizpahiru gailentzen direnak. Epaimahaikide bakoitzak aurkeztu du lan bere balorazioa, eta guztion artean adosten ditugu sarituak eta txapelduna. Esan gabe doa izan ohi ditugula tirabirak.

#### **Izenburu ona izatea garrantzitsua al da?**

Ez nuke esango izenburuak ipuinaren kalitatea islatu behar duenik. Izenburuak maiz ahazten zaizkigu; ipuinaren muinak eta mamiak, aldiz, gogoan irauten du.

#### **Nolako maila du Azkoitiko ipuin lehiaketak?**

Maila ona dela baieztatu dezaket. Lehiaketa honetan, besteak beste, Antton Aranburu, Xabier Mendiguren, Iñigo Aranbarri eta Felipe Juaristi idazleek parte hartu izan dute. Egundak idazle bikainak diren horiek lehiaketa honetan parte hartu izanak erakusten du maila ona dagoela.

#### **Nolako garrantzia du, zure ustez, lehiaketak? Beharrezkoa al da lehiaketari eustea?**


Garrantzitsua dela esango nuke. Kultura bultzatzeko dau den egitasmo guztiak herriarentzat oso aberasgarriak direla uste dut.

#### **Aurten liburu bat ere ateratu dute.**

Araudiak horixe dio, irabazleen lanak argitaratuak izango direla, eta horren ondorio ere bada liburu hau.



HILABETIN BEGIXETATIK





09



10



11



12

**01\_**Eibarko Armeria Eskolako Joanes Balenciaga ikasle azkoitiarra martxoan Madrilen izango den Spainskills 2017 lehiaketan parte hartzeko hautatu dute, kontrol industrialaren arloan

**02\_***Urrats* abestia sortu dute herriko hainbat musikaririk: Xabi Arrieta, Tomas Lizarazu, Jontxu Ape, Jon Andreu, Joxean Elorza, Anari... Abestiaren hitzak, berriz, Eneritz Artetxe eta Silvia Etxaniz bertsolariek sortu dituzte.

**03\_**Azkoitri Triatloi Klubak 2017ko taldea aurkeztu du. Guztira, 40 taldekide inguru lehiatuko dira; horietatik 10 kide dira azkoitiarrak. Apirilaren 9an Azkoitiko XVIII. Duatloia izango da, eta aurten, aurreneko aldiz, ekainean izaten zen herri duatloia egun berean egitea pentsatu dute, klubak aurten 25 urte bete dituelako.

**04\_**Sistema mistoa ezarri eta errefusa jasotzeko ipini ziren zintzilikarioak kendu dituzte. Pixoihalentzat jarritako edukiontzia ere kendu egin dituzte, eta, aurrerantzean, edukiontzi grisera bota beharko dira.

**05\_**Zabalik dago Floreagako meskita. Otsailaren 4an atek irekitzeko eguna antolatuta zuten, eta goiz osoan zenbait herritar bertaratu ziren meskita barutik ezagutzeko.

**06\_**Carlos Juaristik, Aitek enpresako bazkideetako batek, Juaristi erosi du, makina-erremintan eskualdeko eredu izan den Azkoitiko enpresa.

**07\_**Maialen Sudupe 15 urteko igerilari azkoitiarrak urrezko hiru domina eta zilarrezko bat irabazi ditu Azpeitian jokatu zuten Neguko Gipuzkoako Txapelketan.

**08\_XXXV.** Bizenta Mogel Ipuin Lehiaketaren sari banaketa izan zen otsailaren 1ean. Iraitz Legarra markinara izan zen irabazlea, *Iraganaren orbela* ipuinarekin. Ekitaldian, 1999tik 2006ra saritutako ipuinen liburua ere aurkeztu zuten.

**09\_**Eskualdeko udalek Jesus Agirre omendu dute Iraurgi Berritzenen egindako lanagatik.

**10\_**Floreaga ikastetxeko irakasle eta guraso batzuk koplak kantari irten ziren Santa Ageda bezperan.

**11\_**Anaitasuna Mendi Bazkunak antolatuta, umeein txangoa egin zuten hainbat gurasok otsailaren 19an: Ataunetik irten, Urkilla eta Agauntzatik pasatu, eta Lizarrustraino joan ziren.

**12\_**Herriarteko Bertso Txapelketa jokatu zuten otsailaren 3an Eniarraitzeko bertsolariek. Azkenean, oriotarrak nagusitu ziren.



08

Elkarrizketak, argazki galeriak, albisteak eta askoz gehiago **maxizatzen.eus** atarian.




Libiako hiriburua	▼	Eztia	▼	Letonian sortuak	▼	Beharbada, apika
	Eskalea	◆ Deitura	Kontsonantea			
Joan den urtean	▶			Txistu, listu	▶	
Bokala				Gizon izena		
Onuraren hartzaile	▼	Berariaz, nahita	▶			
◆ Izena		Ez hotza, ez beroa				
	▶					
		Orainaldia	▶			
		Emakume izena				
Barrika, upa	▶		▼	Bizkaiko mendia	▶	
Arabako barrendegia				Izana		
				Bokala	▶	Atx!
				Zoriontsu, dohatsu		
Edo	▶			Alokairua	▶	
Urtaro beroa				Isilik!		
	▶			Antzeman	▶	
				Kontso. bustia		
Bokala	▶	Buru estalkia	▶			Bokal biribila
Pirinioetako gailurra		Bokala				
	▶					
				Ugari	▶	

EZETZ ASMAU!

◆ Diseinatzaile azkoitiarra

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Bizkaiko herria, Durangaldean. [2] Erabiltzen ari da. [3] Trakets. [4] Gure herriko dorre bat. [5] Suzko armen jaurtigaia. [6] Gabarra txikia. [7] Pozik, kontent. [8] Lur eremua, bereziki lantzekoa dena. [9] Urduritasunik gabea. [10] Aurpegiaren alboko aldea, matraila. [11] Asiako hego-ekialdeko lurraldea.




HITZ GURUTZATUAK

**Ezker-eskuin**

1. Gure herriko mendi bazkuna. 2. Potroak. 3. Argizagia. Erdi, hitz ekartzeetan. 4. Beharrezkoa du gure ergatibo singularrak. Bokal mehea. Bizkaieraz, darama. 5. Kolore sistema. Antzina Europako sartalde osoan kokaturik zegoen herri indoeuropar batekoa. 6. Asko. Dauka. Hidrogenoa balio du. 7. Garrantziaren arabera, lehena dena. Baldintzetan. 8. Hiru adierazteko aurrizki latinoak. Nitrogenoaren ikur kimikoa. Egun. 9. Gipuzkoako herri batekoa. 10. Arabako udalerrria, Aiaraldean. Hitzarmen, akordio.

**Goitik behera**

1. Abiagunea. 2. Higungarri. 3. Hego Ameriketako oihantako hegazti handia eta ederra. Erakusgarria. 4. Barre xume. Rutenioa balio du. Iridioa. 5. Jatorria adierazteko atzizkia. Beltxarga. 6. Monasterioko buru. Iodoa balio du. Kontsonantea. 7. Musika nota, eskalan zazpigarrena. Zenbaki balio desberdinak har ditzakeen ikur. 8. Zerbaiten esanahiaz, izaeraz edo zergatikoaz jabetu. Ardi, hitz elkartzeetan. 9. Oparoa. 'Zenbat ..., hainbat aburu' dio euskal esaera zahar batek. 10. Agiri mota. Bailara, ibar.



Urolan zehar ibiltzen bazara,  
zure aukerarik onena gara!

Ibai-Ondo 20  
20720 Azkoitia, Gipuzkoa  
943 851 159 Tfnoa  
info@laguipuzcoana.eus  
www.laguipuzcoana.eus

SERIGRAFIA  
TROFEOAK  
EKIPAZIOAK  
TXAPELAK



**GAIA:** Gipuzkoako herriartekoa

Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

► Ugaitz Beristain Lopez de Zubiria

Gipuzkoako izkin orotan  
bertsoa entzun daiteke,  
Herriarteko txapelketari  
hasera eman zaio fuerte,  
Soziedadeak, tabernak eta  
gaztetxeak dira bete,  
Bertsoaz goza nahi duen inor  
gera ez dadin aparte,  
Ambiente honen parte izatera  
gonbidatuta zaudete.

Azkoitin ere somatu dugu  
haize berrien epela,  
Nabarmena da zaletasunak  
goruntza egin duela,  
Kide berriak hasi izana  
da notizia itzela,  
Gugana hurbildu nahi duenari  
esan nahi diot honela,  
Euskerarekin jolasten duen  
lagun talde bat garela.



HITZ GEZIDUNAK

O	K	S	A	Ugaitz	O	T	E	N	A
Bokala bribila	A	O	N	A	X	T	Bokala	Bokala	Pirinoetako gaitura
I	R	R	A	G	I	A	Buru estalkia	U	Bokala
A	R	U	K	A	A	L	Kontxo- bustia	D	A
A	A	Zozkartsu, Bokala	N	I	B	R	Antzemai	A	U
Z	I	O	L	A	E	P	Isilki	A	U
A	N	A	I	R	O	R	Alokaturia	A	U
S	O	P	O	R	P	A	Zozkartsu, Bokala	T	U
U	T	Z	A	I	A	Z	Enakume izena	E	U
A	E	A	R	L	A	R	Ornatidua	A	N
L	G	Leiomai kontxo- sortiak	T	D	Enakume izena	A	Ornatidua	O	A
Beharbatu, apka							Ez horaz, Bokala	E	O
							Berretaz, nabira	U	A
							Quetzal, hartzale	P	A
							Bokala	A	K
							Jean den urten	I	Z
							Liburua	A	R
							Eskaletu	R	A
							Liburua	A	B
							Eskaletu	I	L
							Eskaletu	A	K
							Eskaletu	S	U
							Eskaletu	N	A

ERANTZUNAK

HITZ GURUTZATUAK


N	T	I	A	R	A	A	A	A	I	A	R	A	A	A	N	A
A	R	A	E	T	A	R	R	A	U	R	N	I	E	T	A	R
A	R	A	G	N	A	R	I	T	R	I	G	A	U	R	A	R
B	A	B	A	S	I	A	G	U	N	A	G	U	R	A	R	A
H	U	D	I	A	R	I	U	G	A	R	I	D	U	R	A	R
A	P	A	L	Z	E	L	T	A	P	A	L	Z	E	L	T	A
A	A	K	I	D	A	R	O	A	A	K	I	D	A	R	O	A
A	I	Z	A	R	R	A	R	A	I	Z	A	R	R	A	R	A
B	A	R	R	A	B	I	L	A	B	A	R	R	A	B	I	L
A	N	A	I	T	A	S	U	N	A	N	A	I	T	A	S	U

GOITIBEHERA

A	V	S	I	A	M					
A	S	A	I	L	A	M				
A	S	A	I	L	A	M				
S	A	I	L	A	M					
A	L	A	I	L	A	M				
A	L	A	I	L	A	M				
B	A	L	A	I	L	A	M			
B	A	L	D	A	I	L	A	M		
B	A	L	D	A	R	A	I	L	A	M
D	A	R	A	B	I	L	A	M		
Z	A	L	D	I	B	A	R	A	M	

# Arrotzak

Okindegi-gozotegietan saltzen ez diren zortzi elementu daude hemen. Zeintzuk dira?



# haurren txokoa

## Bakitzari berea

Hondakin hauek (kristalezko botila, papera eta plastikozko botila) birziklatu egiten dira baina horretarako onzi egokian utzi behar dira. Bakarra helduko da behar duen lekura. Zein?



# Itzala

Zein da karramarro honi dagokion itzala? Bakarra da zuzena.



MAXIXATZEN TXIKI

# ELURRETAN

Hamabi biribil hauetatik bi besterik ez dira eskuineko irudi handiari dagozkionak. Zeintzuk dira?





# Handitik txikira

Ordena itzazu panpina errusiar hauek tamainen arabera: handiena lehen izango da eta txikiena seigarrena.



# Ispilujaren aurrean

Pelloziren eta ispiluko bere islaren artean zazpi desberdintasun daude. Zeintzuk dira?




# Sudokua

	■		
		■	●
▲	◆		
		◆	

Osatu bi sudokuotako lauki zuriak, batean figura geometrikoak marraztuz eta bestean zenbakiak idatziz (1etik 4ra). Gogoratu elementu bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe, lerro eta area berde bakoitzeko.

3		1	
	2		
		2	
			3




Itzala Zein da korramarro hont dagokion itzala? Bakarra da zuzena.

3	4	1	2
1	2	3	4
2	3	4	1
4	1	2	3

Osatu bi sudokuotako lauki zuriak, batean figura geometrikoak marraztuz eta bestean zenbakiak idatziz (1etik 4ra). Gogoratu elementu bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe, lerro eta area berde bakoitzeko.



Bakotzarri berea Hondakin hauek (ortulako botila, papera eta plastifikatzailea) birziklatu egiten dira baina horretarako orriak gogoratu behar dira. Bakarra helduko da behar dugun lekura. Zein?




Ispilujaren aurrean Pelloziren eta ispiluko bere islaren artean zazpi desberdintasun daude. Zeintzuk dira?

# Sudokua



Elurpetan Hondakin bakoitza hautatuz bi desberetz ez dira erabiliko. Zeintzuk dira?



MAXIMATZEN TXIKI



'Scar lehoia', talde txikietan hirugarren saria.



"Olinpiadako urrezko garaikurra", talde handietan bigarren saria.



'Rocieras', talde handietan hirugarren saria.



'Haur parkea', talde handietan hirugarren saria.





'Handikoaldekuk', talde txikietan bigarren saria.



'Zoltar la maquina que predice el futuro', talde txikietan lehen saria.



'Ibai Ondo tabernaren 'Infernua', taberna onenaren saria.



'Amish', talde handietan lehen saria.



INAUTERIAK. IRUDITAN



# "Juan Karlos Merino idazle lagunari, esker onez"

► Maxixatzen

**N**egu gorriak kolpe gordinak jo ohi ditu, eta ez bakarrik eguraldia edo argi falta laguntzaile izaten duen astinaldi kaltegarrietan. Negu ilunean kukutzen da askotan Herio, eta hainbat lagun eramaten dizkigu urtero gure ondotik. Hark bisitatzen gaituenean, ez da koplatarako gogorik gelditzen.

Hain zuzen, Santa Ageda eskearen bezperan hil zen Juan Karlos Merino idazlea, kantuko makila hotsak bedatseko bizi berriari dei egiten dion eguna baino lehentxeago. Maxixatzenen lagun, lankide eta gogaide aparta izan dugu Juan Karlos gure elkartearen historia osoan, hainbat eratako lanetarako eskaerei baiezkoa eman diena beti.

Ez dauzkagu ahazteko haren samurtasuna, euskararen aldeko kemena, ideia biziak eta izaera eskuzabala. Azken egun hauetan haren omenez argitaratu diren mezu eta artikuluak dira horren guztiaren erakusgarri nabarmen.

Maxixatzeneko kideok gure esker ona erakutsi nahi diogu nolabait haren memoriari, hura maite duten guztiekin bat eginez; hark idatzitako ipuin luze eder bat erabiliko dugu horretarako.

Datorren hilean zehar, *Beste bizitza batean* izeneko ipuina atalka argitaratuko dugu Webarruen. Orain urte batzuk, halaxe argitaratu genuen ipuin hori bera Interneteko gure leihoa lehenengo aldiz zabaldu orduko.

Haren testu harrigarriak irakurriz, aurrerantzean ere guggan biziko da Juan Karlos, irribarrerik zabalenaekin; hori bai, beste bizitza batean.



**BAZKIDE ORRIA:** *Urtean 25 euro, hilean 2 euro inguru*

**Proiektuko BAZKIDE izateko, bete ondorengo datuak:**

**Izen-abizenak:**

**Helbidea:**

**Herria:**

**Telefonoa:**

**Helbide elektronikoa:**

**Kontu zenbakia:**

**Hiru aukera dituzu:**

- 1- Bete orri hau eta bidali Kultur Etxea, 110 p.k. helbidera (edo sartu doan gure Kultur Etxeko postontzian)
- 2- Bidali datu guztiak honako helbide honetara: [maxixatzen@maxixatzen.eus](mailto:maxixatzen@maxixatzen.eus)
- 3- Bete [maxixatzen.eus](http://maxixatzen.eus) webguneko formularioa

**OHARRA:** Datu babesak

Izaera pertsonaleko datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa jarraituz, jakinarazten dizugu, xedearen arabera biltzen diren datuak Maxixatzen herri komunikabideko (Azkoitiko kultur etxea) titularitatepeko fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Era berean, jakinarazten dizugu, eskubidea duzula datu horietara jotzeko, zuzentzeko baliogabetzeko eta aurkatzeko, eskubide hori Maxixatzen herri komunikabideko (Azkoitiko kultur etxea) Erregistro Orokorreara zuzendu ahal izango duzularik.



# Non dago Zakelmari?



EZETZ TOPAUI!

**O**tsaileko aldizkarian Zakelmari non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 1. orrialdean zegoen. Asmatzaileen artean zozketa egin ondoren, Nekane Aramendik irabazi du Odriozola ardotegiaren saskia.

Datorren hilean Jausoroko Ogi Berri okindegiaren zortzi laguntzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna martxoaren 20a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo [maxixatzen@maxixatzen.eus](mailto:maxixatzen@maxixatzen.eus) helbide elektronikora.



Nekane Aramendi, otsaileko irabazlea.

## FARMAZIAK (MARTXOA)

<b>EGUNEZ: 09:00 - 20:00</b>	
AZKOITIA: Jaen 943 85 07 85	1, 2, 3, 4, 5, 27, 28, 29, 30, 31
AZKOITIA: Gisasola 943 85 12 35	6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26
AZKOITIA: Azpiazu 943 85 29 89	13, 14, 15, 16, 17, 18, 19

<b>GAUEZ: 22:00 - 09:00</b>	URBITARTE AUZUNEA, 3
AZPEITIA: Beristain 943 81 19 49	Urte osoan irekita.

**Anbulatorioaren ondoan**  
**Kafetegi handia dugu:**  
 urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolata txurroekin eta terraza zabala.  
 Eskaintza zabala: ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSSORO AUZUNEA, 5 behe  
 20720 AZKOITIA  
 tel. 943083454  
 FACEBOOKa

OGI BERRI  
 GOXO GOXO

## TELEFONO INTERESGARRIAK:

Udaletxea	943 08 00 80
Udaltzaingoa	943 85 71 71
Suhiltzaileak	112
Epaitegia (Azpeitia)	943 02 51 91
Azkoitia Lantzen	943 85 71 51
Iraurgi Berritzen	943 85 08 43
Abarketatxo ludoteka	943 02 60 27
Artxamendi Gazteleku (GIB)	943 85 60 27
Zubiaurre Elkargunea	943 85 25 44
KIUB	943 85 73 05
KZ Gunea	943 02 36 19
Ertzaintza	943 08 37 80
San Martin ondaregunea	943 85 71 70
Musikagunea	943 85 10 70
Anbulatorioa	943 00 76 10
Plaza Ondo	
Jubilatuen Etxea	943 85 21 68
Bake Epaitegia	943 85 15 97
San Jose Egoitza	943 85 13 23
Aizkibel liburutegia	943 85 08 98
AEK	943 15 10 89
Baztartxo	943 85 19 86
Gurutze Gorria	943 85 32 97
DYA	943 46 46 22
Lanbide (Azpeitia)	943 15 04 02
SOS Deiak	112
Txerloia Futbol Zelaia	943 85 20 61
Gurea pilotalekua	943 85 36 39
Torre Zuri erakustokia	943 85 71 70
Txerloia Tenisa	669 62 18 02
Kultur Etxea	943 85 71 70
Postetxea	943 85 33 93
Gipuzkoako Urak	943 85 08 83
Xabier Munibe haur eskola	943 08 07 37
Xabier Munibe ikastola	943 85 06 46
Floreaga ikastetxea	943 85 30 43
Bizilore	637 70 57 20
Urola Ikastola BHI	943 85 21 74
Garbigunea	696 67 64 56
Mankomunitatea	943 85 73 19
Tamaina handiko trasteak jasotzeko zerbitzua	943 45 98 74
Aldalur	943 85 27 18
Eusko Tren	902 54 32 10
La Guipuzcoana	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
Piper elkarte	943 85 25 87
Taxiak	943 85 10 20

ESKURE KOMENI

04

Baztartxo antzokian, 22:00etan, "Koadernoazuri" antzezlanaz. Goiz osoan, herriko plazan, Gure Esku Dago-ren ekitaldia.

11

Baztartxo antzokian, 18:00etan, Alai Batzaren antzerki musikala. Orion elkarteak antolatuta, "Orion garaikurra" plater jaurtiketa, 12:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara.

12

Gurea frontoian, aizkora apustua. Matadeixen, "Ahora!" antzezlanaz, 19:00etan.

13

Baztartxo antzokian, 12:00etan eta 16:00etan, Floreagako eta Xabier Munibeko DBHko ikasleentzat, FORUM THEATRE taldeak ingelesezko "GHOSTS IN LOVE" antzezlanaz aurkeztuko du.

# MARTXOA

17

Baztartxo antzokian, 18:00etan eta 20:00etan, Goazen musikala.

19

Kontzejupean, 13:00ean, Bizkargi Musika Eskolaren eta Iraurgi abesbatzaren emanaldia.

20

Martxoaren 20an, 18:30ean, zeharkako txirularen entzunaldia izango da Elkarguneko Oteiza aretoan, Bizkargi Musika Eskolak antolatuta.

26

Curea frontoian, idi demak (25ean edo 26an). Kontzejupean, 13:00ean, folk musika eta dantza, Bizkargi Musika Eskolak antolatuta. "Boris & Ingrid" antzezlanaz 19:00etan, Matadeixen.

25

Atracciones Sanzek antolatuta, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era, puzgarriak Balda plazan eta Herriko Plazan eta txu-txu trenan herri osoan (ongintzako ekintza izango da).

31

Baztartxo antzokian, 22:00etan, LABURBIRA Maxixatzenek antolatuta, Korrika kulturalaren barruan.

**BAZTARRIKALDEK** 

*jaiak* 2017 Azkoitia 

**3** ostirala **22:30ean MUS TXAPELKETA** (Orion elkarteak)

**4** larunbata

17:00etan **UMEEN JOLASAK** eta **TXOKOLATADA**

18:00etan **ZALDI PROBAK** Isidro Erreategia Saria

**5** igandea

12:00etan **ZEZENAK** eta **PONIAK** umeentzako

17:30ean **ASTO PROBAK** VIII. Joxe Astarbe Saria

**LAGUNTZAILEAK:**

AGENDIE

## ZINEMA KARTELDEGIA (Baztartxo)



MARTXOAK 3-5-6:  
TARDE PARA LA IRA



MARTXOAK 10:  
THE HANDMAIDEN



MARTXOAK 11-12-13:  
CINCUENTA SOMBRAS MÁS  
OSCURAS



MARTXOAK 12:  
LA VIDA DE CALABACÍN



MARTXOAK 18-19-20:  
LA CIUDAD DE LAS  
ESTRELLAS



MARTXOAK 24:  
EL DÍA MÁS FELIZ EN LA VIDA  
DE OLLI MÄKI



MARTXOAK 25-26-27:  
EL GUARDIÁN INVISIBLE



MARTXOAK 26:  
LA LEGO BATMAN



MARTXOAK 31:  
LABURBIRA

## FINSTRAL®



Zerbitzu hobeagoa emateko asmoz...

... gure dendan LEIHOAK ere baditugu

ZATOZ ETA INFORMA ZAITEZ!

Axiri eraikina, San Juan auzoa 16  
Tel. 943 85 21 10  
AZKOITIA

Abendaño poligonoa, 2  
Tel. 943 13 50 16  
ZARAUTZ

Santiago auzoa, 12  
Tel. 943 14 34 43  
ZUMAIA



WWW.BIYONA.NET  
biyona@biyona.net

## ZURE KONFIANTZAKO TAILERRA!!!!



Garaje Ibar-Goi, S.L.  
Tel. 943850761  
San Juan auzunea, 14  
20720 Azkoitia

ESKAITZEN DITUGUN ZERBITZUAK

Mekanika orokorra	Alineazioa
Aire girotua	IAT - ITV
Diagnosia	aurreko azterketa
Gurpilak	Elektrizitatea

# MILAR LARRAMENDI

Smart Retail  
sistema berria



ULTRA-HD  
PREMIUM

# Larra<sup>III</sup>endi

Sukalde Gunea



Julio Urkixo etorb. 16  
Tel. 943 85 18 97  
[www.milarlarramendi.com](http://www.milarlarramendi.com)

AZKOITIA



Xabier Munibe 11  
Astelehenetik ostiralera:  
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00  
Larunbata: 9:30 - 13:00



# KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA**  
Tel.: 943 85 20 52 • Faxa: 943 85 20 91

[j.artetxe@fkkopistegia.es](mailto:j.artetxe@fkkopistegia.es)